

Prentsa-oharra

SuperBerriak-ek EEEda atzera botatzen ez badu, greba mugagabeari ekingo diogu!

SuperBerriak-ek abiatutako Enplegu Erregulazio Espediente prozedura hasi zen irailaren 7an, eta kontsulta epealdia hasi eta berehala, susmatzen genuena gero eta argiago ikusten dugu: ez dagoela denda hauek itxi eta 70 lanpostu suntsitzea justifikatzen duen arrazoi ekonomikorik. Eta, beraz, EEEda honek ez duela izateko zentzurik.

SuperBerriak enpresak lau BM Shop frankizia ditu, Ugaon, Laudion, Amurrion eta Bilbon. Lauek ondo funtzionatzen dute eta horren erakusgarri da erabaki honek langile, bezero zein auzokideen artean sortu duen harridura. Baina lehen negoziaketa bilera burututa, gero eta argiago dugu EEEda abiatzeko erabakiaren atzean ez daudela negozioaren zifra txarrak: **enpresak aurkeztutako dokumentazioa, eskasa izateaz gain, argi-ilunez beteta dago**. Edonola ere, ez dituzte EEEda justifikatuko luketen arrazoi ekonomikoak frogatzen.

LABek eta CCOOek, enpresan ordezkariak dugun sindikatuok, argi dugu SuperBerriak-ek arduraren bat daukala bere langileekiko, eta beraz, jarduera utzi nahi baldin badu, dendentzako eroslea bilatu beharko duela, lanpostu horiekiko eta lanpostu horiek sostengatzen dituzten familiekiko erantzukizunez. Gainera, denda hauek BM Shop markapean Uvesco Taldearen frankizia izanik, ekidinezina egiten zaigu enpresa-talde honi ere egoera honen aurrean erantzuteko exijitzea eta haiekin bilduko gara horretarako.

Edonola ere, gaur kontsulta-epealdiaren baitan burututako bileran, LAB eta CCOOek prozesu honetan topatzen ditugun irregulartasun eta hutsuneak aurkeztu dizkiogu enpresari, eta EEEda bertan behera utzi eta beste bide batzuk aztertzeke exijitu. Hurrengo bi egunetan **enpresak erantzukizunez jokatu eta EEEda bertan behera uzten ez badu, hurrengo ostiralean, irailaren 16an, greba mugagabeari ekingo diogu** lau dendetan.

Enpresak grebari ekitera behartzen bagaitu, ostiralean bi mobilizazio burutuko ditugu: goizean, 12.30etan kontzentrazioa Bilboko Zazpikaleetako dendaren aurrean (Banco de España Kalea, 3), eta arratsaldean, 18.30etan manifestaldia Audioko dendatik abiatuta (Zumalakarregi Hiribidea, 13). Larunbatean, berriz, 12.00etan kontzentrazioa burutuko dugu Amurrioko denda parean (Intxaudio Kalea, 2).

Horrez gain, Roxyma enpresako langileekin harremanetan gaude gure borroka nola uztartu eta elkarrekin indarra egiteko, jabe berberarena baita eta bertan ere EEEda sartu baitute. Roxymako langileek hiru greba egun egingo dituzte, asteazkenetik ostiralera.

Bilbon, 2022ko irailaren 13an